

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

71/2022 TXOSTENA

Gaia: Enplegu publikoa finkatzeko prozesuetan langileak hautatzeko kudeaketa materiala aurrera erateko Bizkaiko Foru Aldundiari kudeaketa-gomendioa egitearen hitzarmena sinatzea onartzea.

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0255 (2022)

Espediente tramitatzaileria: Idazkaritza saila

Txostenaren oinarria: Toki Erakundearen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua.

Aurrekariak

Lehena.- 2022 azaroaren 7an EUDELetik kudeaketa gomendioaren ereduak bidali dira eta ohartu da azaroaren 30a baino lehen organo eskudunak onartu beharko duela.

Bigarrena.- 2022ko azaroaren 8an Idazkaritza saileko teknikariak Enplegu publikoa finkatzeko prozesuetan langileak hautatzeko kudeaketa materiala aurrera erateko Bizkaiko Foru Aldundiari kudeaketa-gomendioa egitearen memoria justifikatzailea, erabaki proposamena eta hitzarmenaren zirriborroa egin ditu.

Oinarri juridikoak

Aplikagarria den araudia

- Abenduaren 28ko 20/2021 Legea, Enplegu publikoan bitartekotasuna jaisteko premiazko neurrien
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022
16:33:49

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0255
Data: 08/11/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2



- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudia onartzen duena (ROF).

Azterketa juridikoa

Abenduaren 28ko 20/2021 Legeak enplegu publikoan bitartekotasuna jaisteko premia-
neurriak arautu zituen, hori horrela egonkortzerako neurri bereziak ezarri ziren eta
hautaketa prozesuak 2024ko abenduaren 31a baino lehen bukatuta egon behar direla
jaso zen.

20/2021 legearen 1. Xedapen gehigarria Foru Aldundiari kudeaketa gomendioa egiteko
aukera aurreikusten da, hain zuzen ere, zera jasotzen da: *"1. Los municipios, excepto los
de gran población previstos en el Título X de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de
las Bases del Régimen Local, podrán encomendar la gestión material de la selección de
su personal funcionario de carrera o laboral fijo a las diputaciones provinciales,
cabildos, consejos insulares, entes supramunicipales u órganos equivalentes en las
comunidades autónomas uniprovinciales.*

*Los municipios podrán, también, encomendar en los mismos términos la selección del
personal funcionario interino y personal laboral temporal.*

*2. Finalizado el proceso selectivo, la autoridad competente de la entidad local nombrará
o contratará, según proceda, a los candidatos que hayan superado el proceso selectivo.*

2022ko maiatzaren 27an onartutako 1687/2022 Alkatetza dekretuz hainbat eta hainbat
plaza egonkortzeko onartu dira eta Bermeoko udalak ez dauka gaitasun pertsonalik
hautaketa prozesu guzti horientzat epaimahaik eratzeke.

Are gehiago, Idazkaritzako AOTak 2022ko azaroaren 8ko justifikazio memoriarekin bat
eta 2022ko apirilaren 13an idazkari honek egindako 9/2022 txostenean kudeaketa
gomendioaren figura erabiltzearen gomendioarekin bat, zuzen ikusten da kudeaketa



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022
16:33:49

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0255
Data: 08/11/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.
Kodea:
07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2



gomendioa egitea egonkortze prozesuen ondoriozko epaimahaiak eratzea eta horien lana egikaritzea Bizkaiko Foru Aldundiarengan uztea.

Kudeaketa gomendioa araututa dago 40/2015 legeko 11.artikuluari, zeinek dioen: "1. La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.

Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta.

2. La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, siendo responsabilidad del órgano o Entidad encomendante dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.

En todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión, siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.

Kudeaketa gomendioen formalizazioari buruz, 3.b atalak dio:

Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones se formalizará mediante firma del correspondiente convenio entre ellas, que deberá ser publicado en el «Boletín Oficial del Estado», en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante, salvo en el



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022
16:33:49

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0255
Data: 08/11/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2



supuesto de la gestión ordinaria de los servicios de las Comunidades Autónomas por las Diputaciones Provinciales o en su caso Cabildos o Consejos insulares, que se registrá por la legislación de Régimen Local".

Izan ere, kudeaketa gomendioa laguntzeko teknika da eta ez du suposatzen titulartasuna, eskumena ezta egikarritza lagatzea. Gomendioarekin ekintza materialak edo teknikoak burutzen dira. Izan ere, kudeaketa gomendioa baliabide bat da administrazioaren antolakuntza arrazionalizatzeko, baliabide material eta pertsonalen gabezia gainditzeko eta kudeaketa eraginkorragoa lortzeko.

Enplegu publikoa finkatzeko prozesuetan langileak hautatzeko kudeaketa materiala aurrera eroateko Bizkaiko Foru Aldundiari kudeaketa-gomendio zirriborroa aztertuta hurrengoa ondorioztatzen da:

- Gomendioaren helburua da 20/2021 Legetik eratorritako langileak hautatzeko prozesuaren kudeaketa materiala egitea, Bermeoko toki-erakundea egonkortzeko fasean, toki-erakundeak onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartu ondoren.
- Kudeaketa gomendioaren helburua ez da Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen den zerbitzua ematea.
- Hitzarmenaren edukia ikusita, hitzarmen honen xedeak ez dakar ez obligaziorik, ez konpromisorik, ez konpentsazio ekonomikorik sinatzaileen artean.
- Hitzarmenaren indarraldiari dagokionez, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, baldin eta bi alderdiek kudeaketa materialaren gomendioaren beharra ikusten badute. Gainera, aurretik aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute epea gehienez lau urtez luzatzea, 6 hilabeteko aurreabisu-epearekin edo iraungitzearekin.
- *Kudeaketa gomendioak 40/2015 Legeak, 49.artikuluari, jasotako gutxienerako edukia jaso ditu*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 - Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022
16:33:49

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0255
Data: 08/11/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2



Prozedura

Prozedurari dagokionez, hurrengo pausuak bete beharko dira:

- Justifikatu beharko da hitzarmenaren beharritza eta onurak (antolakuntza, ekonomikoki edo teknikoki).

Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2022ko azaroaren 8an justifikazio memoria egin du.

- Proposamena eta hitzarmen zirriborroa beharko da

Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2022ko azaroaren 8an erabaki proposamena eta hitzarmen zirriborroa egin du.

- Eragin ekonomikorik badauka, kontuhartzailearen fiskalizazio txostena beharko da.

Hitzarmenaren zirriborroan bertan eta Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren 2022ko azaroaren 8ko justifikazio memorian adierazi da ez duela eragin ekonomikorik izango.

- Idazkari nagusiaren txostena beharko da
- Informazio Batzordearen irizpena beharko da.
- Akordioa Osoko Bilkurak hartu beharko du, gehiengo osoz, 7/1985 Legearen 47.2.h artikulua arabera.
- Akordioa hartuta, 2022ko azaroaren 30a baino lehen, EUDELeri jakinarazi beharko zaio
- Hitzarmena idazkariaren aurrean formalizatu beharko da.
- Behin formalizazioa eginda, hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA -
14/11/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022
16:33:49

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0255
Data: 08/11/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2



Ondorioak

Espediente adostasunez informatzen da, hurrengo oharrekin:

Oharra:

Kudeaketa-gomendioan kontsolidazioari buruz hitz egiten da, berez, egonkortzeari buruz hitz egin behar denean; izan ere, figura ezberdinak dira, idazkari honek 2022ko apirilaren 13an egindako 9/2022 txostenean esandakoarekin bat.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 14/11/2022 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/11/2022 16:33:49	EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0255 Fecha: 08/11/2022 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia
--	--	--	---

CSV: 07E6000B0F8300Q1J5I9K5C8R2

